

I. ERANTSIA

COVID-19 kasuak kudeatzeko protokoloa

Talde eta azpitaldeen, ikasleen eta irakasleen kokapenaren kontrol zehatza eginen da ostatuetan, jantokietan, kanpineko eremuetan...Kanpainaren arduradunak, harreman estuen talde bakoitzari buruzko informazio zehatza emango dio ikastetxe bakoitzari, edozein kasutan COVID arakatzeko lana errazteko.

Familiek parte hartzeko baldintzak onartzeko agiria sinatu beharko dute, baita 2021 Belako Eskola Kanpainan parte hartzeko informazioa eta adostasuna ere. Agiri horiek ikastetxeen bidez helaraziko zaizkie.

1. Egoera hauetakoren bat aurkezten bada, ez dira Eskolako Bela Kanpainara joango:

- PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain egotea.
- Isolatuta egotea, PCR+ bidez diagnostikatutako koronabirus-infekzioa duelako.
- Berrogeialdian egotea, COVID kasu egiaztatu baten kontaktu estua delako.
- Hamabi urtetik beherako haurrak, bizikide bat PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten zain dagoenean, COVID-19rekin bateragarria delako.
- **Koronabirusak eragindako infekzioarekin bateragarriak diren sintomak izatea.**

2. Definizioak

- **Kasu susmogarria:** Kanpainako edozein parte-hartzailek edo langilek, baldin eta, sukarra, eztula edo aire-faltaren sentazioa tarteko, bat-batean agertzen den arnas infekzio akutuko koadro kliniko bat badu. Beste sintoma batzuk izatea, hala nola, odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako mina, beherakoak, bularreko mina edo zefaleak. Sintoma horiek SARS-CoV-2 kutsatuta dagoela susmatzen da, irizpide klinikoaren arabera.
- **Infekzio aktiboaren kasu berretsia:** kasu susmagarriaren irizpide klinikoa betetzen duen pertsona, ANTIGENO positiboaren PROBA duena

- **Kontaktu estua:** Kontaktu estutzat hartuko da infekzio aktiboko kasu baieztatu batekin edo infekzio aktiboko kasu posible batekin espazioa konpartitu duen edozein parte-hartzaile, medikuaren irizpidearen arabera, bi metro baino distantzia txikiagoan, hamabost minutu baino gehiagoan, muxukoa modu egokian erabili gabe.

3. Kasuen kudeaketa

- **Ikasle batek COVI-19 ereduarekin bateragarriak diren sintomak aurkezten baditu bela-kanpainan:**
 - Kasu honetan, Bilatortako Osasun Etxean eskatuko da zita, antígeno proba egiteko.
- **Kasua infekzio aktiboarekin berresten bada:**
 - Kanpainaren zuzendaritzak behar den informazioa emango die arakatzeko-taldeei.
 - Kontaktu estutzat hartzen diren parte-hartzaileei berrogeialdia adieraziko zaie, eta, beraz, espazio izendatuetan itxaron beharko dute haien familiak edo legezko tutoreak haien bila joan arte, etxera eramateko.
 - Irakasle arduradunak familiakoei edo legezko tutoreei jakinaraziko die, ahalik eta lasterren autoan joan daitezela. Familiak edo legezko tutoreak lokalizatu egin beharko dira bela kanpainak dirauen bitartean .
- **Sintomak dituen ikaslearen antigenoen proba negatiboa** bada eta medikuak sintomen jatorria argi eta garbi ikusten badu, medikuaren, irakasle arduradunaren eta familiaren arteko bela-kanpainarekin jarraitzea baloratuko da.

4. Kanpainako langileen kasuen kudeaketa

Kasu horien kudeaketa parte-hartzaileen kudeaketaren antzekoa da. Haien Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari jakinaraziko zaio. Kontaktu estuen sorkuntza gutxituko da 2 metroko distantziaren prebentzio neurrien, muxukoaren eta espazioen aireztapenaren bidez.

KUOTEN ITZULKETA

- * Izena eman ondoren eta parte hartu aurretik **eritasun bajaren bat** izanez gero, inskripzioaren zenbatekoa itzuliko da, behar bezala justifikatu ondoren (medikuaren ziurtagiria).
- * Izena eman ondoren eta parte hartu aurretik ikastetxeak **diziplina arrazoiengatik baja** emanaz gero, eta kanpainaren zuzendaritzarekin balorazioa egin ondoren, zenbateko osoaren %50 itzuliko da.
- * COVID-19 delakoagatik **txanda baten bat bertan behera** uzten bada, edo parte-hartzaileak ezin badira joan PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain egoteagatik, isolatuta daudelako PCR+ bidez diagnostikatutako koronabirusaren bidezko infekzioa duelako, berrogialdian daudelako COVID kasu egiaztatu baten kontaktu estua delako edo parte hartzen duten sintoma bateragarriak dituelako, izena ematean ordaindutako zenbateko osoa itzuliko zaie parte-hartzaileei..
- * Salbuespen gisa, eta parte-hartzailearen batek, Aritzalekuko kanpinean instalatu ondoren eta **Covid19ren ondorioz**, kasu positiboa izateagatik edo harreman estua izateagatik jarduera utzi behar badu, egin ez den jardueraren zatiaren kostuari dagokion itzulketak egingo zaio, Federazioak aurre egin behar dien eta berreskuratu ezin diren gastuak kenduta.